



## UMANDI GURASO ELKARTEA

[www.umandi.net/ampaumandi](http://www.umandi.net/ampaumandi)

# GURASO ELKARTE BILERA

---

Umandi ikastolan 2013ko Azaroak 14, eta aurrez horretarako deialdia egin ondoren guraso elkarteko partaideak bildu dira, ondorengo hauek bertaratuz:

Nuria Alonso Lafuente (lehendakaria), Ana Arroyo (lehendakari ordea), Itsaso Imaz (idazkaria), Vega Terrazas, Bego Gaviña, Ainhoa Velez, Arturo Amado, Peio Cernadas, Juan Carlos Saenz, Eneko Etxegarai, Sonia Fernández de Arroyabe, Carlos Sanz, Nerea Salazar.

Hasiera ordua: 19:00.

Bukaera ordua: 20:30.

## EGUNEKO AZTERGAIK

### - AURREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA ONARTZEA:

Bileraren deialdiarekin batera aurreko akta bidali zen irakurritzat eta onartutzat ematen da.

### - ESKOLAZ KANPOKO KUOTAREN ITZULTZEA:

Familia batek eskatu du kuotaren itzultzea baina ez diogu itzuli konforme egoten ez garelako. Familia ez dago ados erabaki honekin.

### - DENON ESKOLAKO ORDEZKARI BERRIA ETA BALATZEA.

Juan Carlos Saenz Denon Eskolan gure ordezkari berria da; bertan bilera batetan egon zen eta informazio berri ugariarekin bertaratu da.

- Eskola maparen aldaketa egin behar da; 4 zonaldetan banatuko da. Honen gainean hitz egiteko hilaren 18an bilera bat egongo da Denon Eskolan hilaren 25 arte egin daitezkeelako alegazioak.

Gure proposamena Umandi ikastolako Guraso Elkarte moduan, gure erreferentzia ikastetxeak Koldo Mitxelena eta Mendebaldea izan daitezela.

- LOMCEaren gainean aipatu zen Denon Eskolaren aldetik pentsatzen dela ez dela indarrean jarriko datorren urtean.
- 2013-2014 ikasturteko ekintza proiektua aurkezten da.

- Ordezkarriak eskatzen du Guraso elkarteko bilera Denon Eskolako bileraren jarraian izan dadila.

- **EUSKARAREN ASTEA:**

Abenduak 3, euskararen nazioarteko eguna dela eta, aste horretan ekintza bereziak burutuko dira. Aurtengo euskararen astearen gaia eta sukaldaritza da. Hori dela eta ikastolako sarreran sukalde tresnen erakusketa bat egin da.

Ikastolak boluntarioak eskatzen ditu geletan sukaldaritzarekin zerikusia duten ekintzak burutzeko.

Zuzendaritzak diru laguntza eskatu digu gaztaina saltzaile bat ekartzeko ikastolara euskara eguna ospatzeko.

- **WEB BERRIRAKO PROPOSAMENAK:**

Web orria atzeratua dagoela aipatzen da. Arduradunak aipatzen du web orri berria pixkanaka martxan jartzen ari dela. Domeinua urtarrilean iraungitzen da eta pentsatu egin behar dela ea merezi duen berdina mantentzea edo aldatzea.

- **BATZORDEEN EGOERA EGUNERATUA:**

ESKOLAZ KANPOKO EKINTZA BATZORDEA: Azaroaren 1tik aurrera monitoreak kontratuarekin lanean ari dira. Bi monitore arrazoi pertsonalak direla eta kontratu gabe daude momentuz baina egoera hau ahalik eta lasterren bideratuko da. Monitore bat autonomia da.

BARATZ BATZORDEA: Zortzi bat guraso prest daude baratzen batzordean parte hartzeko. Leku bat eskatu da materiala pilatzeko eta hasteko paleak gordetzeko jantokiko sarrera, aulkientzako kaiola azpian, eskatu da.

5-6 irakasleko talde bat sortu da baratzea aurrera eramateko.

Azaroaren 13rako ikastolak baratzerako proiektua aurkeztu behar du udaletxeko diru laguntza jasotzeko.

Beharrezko materialaren lista bat egingo da diru laguntzan sartzeko.

Enpresa batek ikasleekin konposta lan egiteko proiektu bat aurkeztu du; irakasleei aurkeztu zitzaizen eta orain beraiek erabakiko dute.

Beste aztergairik gabe, bilera bukatutzat ematen da 20:30tan.

Nuria Alonso

-Lehendakaria-

Itsaso Imaz

-Idazkaria-